



---

150. urteurrena

# Eibarko Itun Federala


1869-2019

---



federalistak





## **Eibarko Itun Federalaren 150. urteurrena, 1869-2019**

**Antolatzaileak:** Eibarko Udala-Ego Ibarra batzordea / Euskal Herriko Federalistak

**Edizioa:** Eibarko Udala-Ego Ibarra

**Testuak:** José María Portillo Valdés

**Itzulpenak:** Lurdes Auzmendi Aierbe

**Argazkiak:** : Eibarko Udal Artxiboa

**Diseinua eta inprimatzailea:** Cioka / Ulzama Gráficas

**LG/DL:** SS-662-2019

**Azaleko argazkia:** Jose Cruz Echeverría Leturiondo, Itunaren sinatzaileetako bat (Julian Echeverriaren bilduma pribatua).



**1869**

**Eibarko  
Itun  
Federala**

# Eibarko Itun Federala (1869)

**José María Portillo Valdés**

Euskal Herriko Unibertsitateko Historia Garaikidea Saileko irakaslea eta ikerlaria.

**Duela 150 urte egin zuten federalistek beren ituna arma-hirian, aurreko urtean sortua zen Alderdi Errepublikar Federalari forma emateko itun multzo baten barruan.**

1868ko iraultza demokratikoaren babesean, zeinak Isabel II.ari tronua kentzea ekarri zuen, Alderdi Moderatuaren nagusitasunaren urte zailtan zehar Alderdi Demokratikoaren lider izan zen Jose Maria Orensek alderdi errepublikar berri bat sortu zuen, Alderdi Progresistaren ezkerretara zeuden beste korronte batzuekin batera. Beste alderdiek bezala, ez zen etengabeko jardunean zegoen alderdia, gaur egun ezagutzen ditugun alderdien esturturekin. Orduko alderdiak egoeraren arabera alderdiak baino ez ziren, hauteskunde garaian tokiko eta probintzia mailako batzordeen bidez bakarrik funtzionatzen zutenak.

Alderdi Errepublikar Federala, ordea, esturturea egonkorragoaz hornitzen hasi ziren lehenengo alderdietako bat izan zen, eta hori itun federal multzo baten bidez egin zuen, haien artean Eibarkoa. Egia esan, hori egitean alderdi barruan banaketa larro bat markatzen ere ari zen, denak ez zetozelako bat errepublika federalaren egokitasunarekin. Bere erreferentzia gisa Emilio Castelar zeukan sektoreak bide horrekiko atxikitasun eskasa erakutsi zuen, 1869ko Konstituzioaren eztabaidetatik bertatik hasita.

Itun horiek 1868ko iraultzaren –iraultza Aintzatsua– eta 1869ko konstituzioaren testua sorrarazi zuen eztabaida konstituziogilearen giroan sortu ziren. Une

egiaz erabakigarria izan zen Espainian modernizazio politikoaren prozesuan: izan ere, aurreko beste edozein aldaketa unetan ez bezala, tronua hustuz hasi zen. Ostendeko Itunean erabakita zegoen legez, «agintearen goi eremuak» hustu eta batzar eratzaille bat deitu zen gizonetzkoen bozkatzeko unibertsalaren bidez osatua. Gogoratu behar da halako ezer lehenago gertatu gabe zegoela Espainiaren historian, aurreko aldaketa konstituzional guztien operazioetan monarkia arretaz errespetatu zelako.

Gertakizun horrek berehalako eragina eduki zuen 1869an onartutako konstituzio berria eztabaidatzeko bildu zen batzarrean. Hasteko, onartu egin zen printzipio bat zioena burujabetasuna nazioaren baitan bakarrik zetzala eta, hori erabiliaz, berak komenigarrien ikusten zuen erregimen politikoa era zatekeela. Izan ere, Espainian lehenengo aldiz jarri zen auzitan monarkia. Jakina den bezala, azkenik Gorteek aldeko erabakia hartu zuten, eta ondorioz alderdi errepublikarreko gutxiengo batek

“

Alderdi Errepublikar Federala  
 e-  
 struktura egonkorragoaz  
 hornitzen hasi ziren lehenengo  
 alderdietako bat izan zen, (...).

(baina horien artean Jose Maria Orense lider zaharra, eta Francisco Pi i Margall intelektual preziatuena zeuden) uko egin zion konstituzioa sinatzeari.

Monarkia bozketa nazional batera lehenengo aldiz eramane zen bezala, lehenengo aldiz aitortzen zuen halaber konstituzio espainiar batek askatasun erlijioso espainiarren funtsezko eskubideetako bat zela. Cadizko

Konstituzioaz geroztik (1812) Espainian indarrean egondako testu guztiek (1837 eta 1845) lotura bat ezartzen zuten espainiarra izatearen eta katolikoa izatearen artean, kanpoan utziaz doktrina liberalarentzako hain funtsezkoa zen printzipio bat: norberaren kontzientziari buruzko burujabetza indibiduala. Nazioak eliza katolikoaren kultuari eta ministroei eustera beharturik jarraitzen zuen arren, lehenengo aldiz sartzen zen askatasun erlijiosoa eta bereizketa bat espainiar eta Elizako kide izatearen artean.

Ez ustekabean, 1869koa izan zen, azkenik, eskubideen aitortza formal bat hasieran sartu zuen lehenengo konstituzio espainiarra. Hogeita hamar artikuluz osatutako adierazpena zen, eta horietako bat, 29.a, Estatu Batuetako Konstituzioaren (1791) lehenengo emendakinetatik ekarria, herrialde iparramerikarrean banakako eskubideen erradikaltasunean oinarritutako jurisprudentzia-iturri bihurtua: «Izenburu honetan jasotzen diren eskubideen zerrendatzeak ez dakar zehazki jasotzen ez den besteren baten debekua». Printzipio horrek, bai, ireki egiten zuen eskubideen ideia mugagabe baten aukera bereiztean beraien izatea eta aitortza lege gilea.

Ez litzateke desegokia izango, beraz, esatea Espainian aurrez erreforma konstituzional esanguratsuak gertatuak baziren ere, 1868an ireki zela egiaz une iraultzaile bat hitzaren esanahi osoan, alegia, une bat non monarkia eta erlijioa borondate nazionalaren diziplina konstituzionalaren pean jarri eta gizabanakoen eskubideak jarri ziren sistema konstituzionalaren oinarrian.

“

Hogeita hamar artikuluz osatutako adierazpena zen, eta horietako bat, 29.a, Estatu Batuetako Konstituzioaren (1791) lehenengo emendakinetatik ekarria.

Pentsa daitekeen bezala, errepublikar federalistei testu horretako gauza batzuk gehiago gustatzen zitzaizkien eta beste batzuk gutxiago. Eztabaiden buru izandako Primeren aurrerazaleekin bat zetozen eskubideen printzipioan eta, noski, bereziki kontzientzia askatasunean; baita gizonezkoen bozkatzeko unibertsalarekin eta udal bizitzaren demokratizazioarekin ere.

Ez zeuden konforme, noski, bozketa parlamentarioan inposatu zuen aukera monarkikoarekin ez eta monarkiari laguntzen zion estruktura bateratuarekin ere. Castelarek –zeinak bai sinatu zuen testua behin Gorte Konstituziogileek onartu ondoren– jarrera laburtu egin zuen baieztatzean bere alderdiak «men egiten ziola» konstituzioari gehiengoaren borondatearen produktu zalantzagabea zen neurrian, baina ez zuela monarkia onartzen Espainiarako behin-betiko gobernu forma gisa.

Horregatik, testua sinatu ere egin nahi izan ez zuen sektorea, federalismoaren aldekoa, alderdia modu iraunkor eta egonkorragoan eratzen hasi zen. Oso interesgarria da azpimarratzea Estatu eratzeko proposatzen zituen printzipioak jarraituz antolatzen saiatu zela alderdia bera: tokiko eremutik orokorrera ehuntzen zihoazen itunak. Horrela erantzuten zitzaion federalisten printzipio orokorrari, alegia, lurralde-komplexutasunean gora egiten zuten itun horien bidez agian iritsi ahalko zela gizateria osoa hartuko zuen unibertsal batera.




Inocencio Ortiz de Zárate eta Ciriaco Aguirreren sinadurak. Eibarko Udal Artxiboa.

Hori horrela izanik, ordea, itun eremuen aukeraketa ez zen federalisten aldetik ustekabekoa, ez eta tolesgabea izan. Beraien artetik lehenengoa, 1869ko maiatzekoa Tortosan egin zen eta sektore ideologiko honentzat kontzientzia historikoak eduki beharreko pisua nabarmen erakusten zuen. Tortosan Katalunia, Aragoi, Balearrak eta Valentiako ordezkariak elkartu ziren, Aragoiko koroa osatu zuten lurraldeak, alegia. Kordoban



Yrurac bat *Diario político de Bilbao*. Eibarko Itun Federalaren idazkia, 1869ko ekainaren 27an kaleratua. ([www.katalogoak.euskadi.eus](http://www.katalogoak.euskadi.eus))

1492 arte Gaztelaren he-  
dapenaren ondorioz  
finkatutako erresuma eta  
probintzietako ordezkari-  
ak bildu ziren –Extre-  
madura, Murtzia eta bi  
Andaluziak–, bien bitar-  
tean A Coruñan sustrai  
gutxi samarreko bilkura  
bat egin zen Galiziako  
antzinako erresumaren  
eta Asturiaseko printze-  
rriaren artean. Beste kasu  
batzuetan gertatu zen  
bezala –adibidez 1808an  
Batzorde Zentrala osatu  
zenez–, antzinako  
konstituzioak birsortu  
nahi zirenean lurralderik  
arazotsuena Gaztelakoa  
izan zen. Valladoliden ha-  
mazazpi probintzia bildu  
ziren bi Estatu gaztelar-  
tan.

Eibarko ituna testuin-  
guruan jartzeko balio dute  
oinarrizko datu hauek;  
bertan hiru Euskal pro-  
bintzietako eta Nafarroako  
ordezkariek parte hartu  
zuten. Lehenik, honetan

jarri behar dugu arreta, izan ere aipatu diren ezaugarriek  
jarraiki, bilera historia bat partekatzen zutenaren kontzi-  
entziarekin egin baitzuten.

Aurrez moderatu eta aurrerazaleek egin eta gero beste  
ideologia batzuek egingo zuten bezala, errepublikar  
federalista euskaldunek ere foruei buruzko irakurketa  
berezia egin zuten. Urte iraultzaile haietan Julian Arresek  
Descentralización universal o el fuero vascongado  
(1873) lanean luze eta zabal adierazi bezala, foruen  
irakurketa errepublikarra ere izan zitekeen: erakunde  
demokratikoak ziren, udal eta probintzia autonomian



oinarrituak eta autonomia erregimenean gorpuztuz politiko goragoko–Espainiako– baten parte izateko balio zutenak. Eibarko Itunak jasotzen zuen bezala, kontua ez zen izango oinordetzan jasotako sistema likidatzea, baizik interpretazio errepublikar eta federal horrekin Espainiako gainerako tokietara hedatzea baizik.

Puntu hau funtsezkoa da federalismoan jatorri horiek geroztik: aldi berean jartzen da arreta tokiko autonomiaren zaintzan eta nazio espainiarraren eraikuntzan. Bateriaezinak izatetik urrun (oraindik iristeke zegoen nazionalismoarentzat bai izango dira), errepublikarrentzat txanpon beraren bi aldeak ziren, 80ko urteetan egiaz atzeraka zihoan alderdiarekin hautsi



Eibarko Itun Federalaren karian kaleratutako kartela (1869).

ondoren antzeko zerbait egin zuen Valentí Almirallek, Espainiaren katalanizazio moduko bat iradokiz. XIX. mendean federalismoak eduki zuen teorizatzailerik garrantzitsuenak, Pi i Margallek, ideia horren gainean eraiki zuen Las nacionalidades (1876) bere lana: Espainiak berreskuratu nahi zuen federalismoaren ideia bere lurraldeetatik sortzen zena zen, eta nazio gisa artikulatu zitekeen itun multzo baten bidez. Monarkiatik inposatutako Espainiari kontrajartzen zitzaion. Bien helburua batasuna zen, baina monarkia akastunagoa zen, hain zuzen itunaren oinarririk ez zeukalako.


Zergatik zen ituna hain funtsezkoa kultura politiko horretan? Erantzuna, nire ustez, ez dago bakarrik nazio espainiarraren lurralde antolaketaren baitan, baizik batez ere eta funtsean espainiarren eskubideen baitan. XVIII. mendearen amaiera eta XIX.aren hasierako lehenengo iraultza konstituzionalen ondoren, zeinaren adierazpidea Espainian Cadizko Konstituzioa izan zen, liberalismo europarrari bete-betean eragin zion dilema sortu zen.

Onartzen bazen, iraultza haietan egin zen bezala, burujabetza nazionalaren eta bere adierazpenaren hedatze-printzipioa borondate orokorraren bidez, zein zen bere muga? Liberal europar askok 1815. urtearen ondoren uste osoa zeukaten burujabetza nazionalaren izenean gizabanakoen eskubide eta askatasunen espazioa inbaditu egin zitekeela. Horregatik, liberal batzuek, moderatueneak, burujabetza nazionalaren printzipioa saihestea erabaki zuten, eta horrela zentratzea jabetza eskubidean alde batetik, eta bestetik Estatuan eta bere Administrazioan.

“

Liberalismo aurrerazaleak nahiago izan zuen neurri batean edo bestean burujabetza nazionalaren ideiarekin kontaktzen jarraitzea

Liberalismo aurrerazaleak, ordea, nahiago izan zuen neurri batean edo bestean burujabetza nazionalaren ideiarekin kontaktzen jarraitzea, Federalismoaren ekarpena, Eibarko testuan bertan islatua ikus daitekeen bezala, oso aberasgarria izan zen: banakoen eskubideak babesteko, nazioa (eta beraz bere burujabetza) itunak behar ziren, gizabanakoa na-



Ciriako Aguirre mediku eibartarren etxea Plaza Barria, itunaren sinatzaileetako bat. Eibarko Udal Artxiboa.

zioarekin lotuko zutenak. Hain zuzen, ulertzen zelako «banakoen eskubideak absolutuak, besterenezinak eta baliogabezinak direnez gero», baztertu egin behar zen monarkia unitarioa eta errepublika federala onartu, bermatzeko burujabetza nazionalaren eta banakoen eskubideen artean auzi konponezinik ez zela gertatuko.

# Pacto Federal de Eibar (1869)

## *BASES*

1ª. Gozando las provincias vascas de un régimen democrático republicano, cuyas inmensas ventajas acreditan su grado de prosperidad y una larga experiencia de muchos siglos, la federación constituida de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Álava aspira en primer término a conservar y defender las instituciones a cuya sombra han vivido, y a restaurar las libertades de que han sido privadas, durante la larga dominación monárquica; defendiendo su código foral de nuevas mutilaciones hasta alcanzar su completa autonomía provincial, conservando al mismo tiempo el más estrecho y perpetuo vínculo de unidad con la madre patria en el lazo federal republicano.

2ª. El partido republicano de las provincias vascongadas y Navarra se declara solidario en cuanto hace relación a su conducta política y a la propaganda del principio de que su actual régimen está completamente garantido, constituida España en república federal y peligrará siempre bajo las monarquías, máxime si se tiene en cuenta la tendencia de los varios aspirantes al solio que envolverán en una guerra fratricida a nuestro hermoso país, guerra en que se jugaría al azar del éxito nuestras venerandas leyes.

3ª. No moviendo a la Asamblea un interés exclusivista y local sino el deseo de asimilar las condiciones de España a las nuestras a fin de que alcance a todas las provincias el tesoro ofrecido por las libertades democráticas, proclamando el origen y elemento primario de nuestro credo que los derechos individuales son absolutos, inalienables e imprescriptibles, y derivándose de estos derechos la soberanía popular que goza de esos mismos atributos, declara que la absorción indefinida de los poderes por una persona, una familia, un poder hereditario o una colectividad es atentatoria a dicha soberanía.

4ª. No obstante la anterior declaración y puesto que la forma monárquica de la constitución promulgada es hija de una asamblea nacida del sufragio, el partido republicano cree que no debe salir de una propaganda pacífica y legal interin no se vede injusta y violentamente el ejercicio de los derechos individuales consignados en el código fundamental.

5ª. Los republicanos de la federación Vasco-Navarra se organizarán del modo que los comités provinciales crean más conveniente a las condiciones de su respectiva localidad. Las comisiones de provincias nombrarán un apoderado para formar el consejo federal que se reunirá en Eibar o donde estimen oportuno.

6ª. El Consejo federal es la junta directiva del partido republicano y se nombrará todos los años, pudiendo sus individuos ser reelegidos con la facultad de designar suplentes en las capitales donde fueren nombrados, cuando no puedan concurrir a las conferencias que deben celebrarse siempre que los intereses de la federación lo reclamen.

Transitoria: la Asamblea Vasco-Navarra felicita ardientemente a las provincias iniciadoras del pacto federal de Tortosa y a las federaciones de Córdoba y Castilla, y les ofrece su cooperación, interpretando la suya bajo el lema de la fraternidad ibérica en la república federal.

La experiencia de lo que son los pueblos, cuando quebrantando el tesoro de la libertad más amplia dentro de la esfera de libertad ajena y la práctica de los derechos individuales sin otra restricción que el juicio de la recta conciencia; el lastimoso estado a que ha venido España cuando a la soberanía del pueblo ha sustituido la soberbia de los monarcas; la ruina que amenaza siempre que a la austeridad y modestia de la democracia se antepone el fausto y prodigalidades de las Cortes son los únicos móviles que nos impulsan a agitarnos en pro de una idea que juzgamos la única capaz de salvar nuestra apreciada autonomía y la independencia de la patria.

Eibar, 23 de junio de 1869

#### **POR ÁLAVA:**

Pedro de la Hidalga, Ricardo Becerro de Bengoa, Daniel Ramón de Arrese, Juan Bautista de la Cuesta, Abelardo de Sagarminaga, Hilario Martínez, Juan Roca y Cayetano Letamendi.

#### **POR GUIPÚZCOA:**

Justo María Zavala, Blas Irazueta, Felipe Ariotegui, Manuel Ezcurdia, Vicente Aguirre, Celestino Echevarria, Inocencio Ortiz de Zárate y José Cruz Echevarria.

#### **POR NAVARRA:**

Ignacio Aztarain, Antonio Velasco, José Lorente, Félix Utray, Baldomero Navascués, Pedro Fraizu y Julián Garay.

#### **POR VIZCAYA:**

Cosme Echevarrieta, Horacio Oleaga, Antolín Gogeoasca, Joaquín Mayor, Julián Arzadun y José Ramón de Ibaceta.

## PROGRAMA

### Ekainak 21

**19:00:** FEDERAL dokumentala, Albert Solé Bruset zine-zuzendariarena; eta, ondoren solasaldia. Lekua: Portalea Kultur Etxea, 2. pisua, Areto Nagusia.

### Ekainak 22

**11:00:** Mahaingurua federalismoaren iraganari eta etorkizunari buruz. Hizlariak: Alberto López Basaguren, Antonio Rivera eta Zulima Pérez. Lekua: Udaletxeko Batzar Aretoa.

**13:30:** Antxon Narbaiza Azkueren komunikazioa, "Eibartarren portaera errepublika-noak: Vicente Aguirre, Echeverria, Ortiz de Zarate, Ibarzabal eta beste hainbat".

**14:00:** 1869ko Itun Federalista oroitzeko ekitaldi instituzionala. Eibarko alkatea eta Lurdes Auzmendi, Euskal Herriko Federalistak elkartearen burua. 2019ko Eibarko Deklarazio Federalista lau hizkuntza koofizialetan irakurriko da.